



## 66. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2013ko maiatzaren 29an, arratsaldeko zortzietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

<b>Lehendakaria:</b>	Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak:</b>	Arritokieta Gonzalez Elosua and.. Iñaki Ostolaza Esnal jn Azis Alberdi Zaldunbide jn. Eneko Agirre Maiora jn. Maitane Agirre Arrieta and. Montse Arana Perez and. Edurne Egaña Manterola and. Xabier Gallastegi Idigoras jn. Isidro Fernandez Echave jn. Aitor Leiza Alberdi jn
<b>Ez bertaratuak</b>	Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn. Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

**Kontuhartzailea:** Mikel Zubizarreta Elicegui



## EGUNEKO AZTERGAIK

### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (65. zbkia - 2013.05.02)

65. akta, besterik gabe, onartutzat eman dute.

-----

### 2.- XABIER GALLASTEGI IDIGORAS jnak, EAJ-PNV TALDEAREN ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.-

Alkateak Xabier Gallastegi Idigoras jaunak zinegotzi kargua hartzeko aurkezpena egin du eta, jarraian, kargu hartzea gauzatu da.

Montse Aranak (EAJ-PNV) batzorde informatiboetan euren ordezkariak eta hauen ordezekoak zein izango diren azaldu du:

BATZORDEAK	TITULARRAK	ORDEZKOAK
GAZTEDIA, PARTAIDETZA, BERDINTASUNA ETA ETORKINAK	Edurne Egaña, Montse Arana	Isidro Fernandez , Echave
GIZARTE ZERBITZUAK	Juan Carlos Cendoya, Montse Arana	Edurne Egaña, Isidro Fernandez
OGASUNA	Edurne Egaña, Montse Arana	Xabier Gallastegi, Isidro Fernandez
HEZKUNTZA ETA EUSKERA	Edurne Egaña, Montse Arana	Juan Carlos Cendoya
HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK INGURUMENA	Xabier Gallastegi, Isidro Fernandez	Edurne Egaña, Montse Arana
KIROLAK	Xabier Gallastegi, Isidro Fernandez	Juan Carlos Cendoya, Montse Arana
KIROLAK	Juan Carlos Cendoya, Montse Arana	Xabier Gallastegi, Edurne Egaña
KULTURA	Juan Carlos Cendoya, Montse Arana	Xabier Gallastegi, Edurne Egaña
MERKATARITZA ETA TURISMOA PERTSONALA	Juan Carlos Cendoya, Xabier Gallastegi Edurne Egaña, Montse Arana	Montse Arana, Isidro Fernandez Juan Carlos Cendoya, Isidro Fernandez
MUSIKA PATRONATUA	Juan Carlos Cendoya, Montse Arana	Edurne Egaña, Isidro Fernandez
KIROL PATRONATUA	Juan Carlos Cendoya, Montse Arana	
ZUMAIA LANTZEN	Edurne Egaña, Xabier Gallastegi	Isidro Fernandez, Montse Arana

-----



Zumaia Udala

2013IAKU0005

### 3.- OGASUNA.-

Alkateak 3. kreditu aldaketaren proposamena eta Narruondoko hitzarmena ren irizpena lotura zuzena dutenez gero, jarraian eztabaidatzea eta bozkatzea erabaki du.

-----

#### 3.2.- PROPOSAMENA:

#### -3.- KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2013KCRE0001

#### <<2013KO ZUMAIKO UDALEKO AURREKONTUAREN 3.KREDITU ALDAKETA

#### A) ZUMAIA-NARRONDO BIZIKLETA ETA OINEZKOENTZAKO BIDEGORRI.HITZARMENAREN ARABERAKO KREDITU ALDAKETA

##### AURREKARIAK:

**Hitzarmen bat sinatu behar da, bizikleta eta oinezkoentzako zumaia-arroa zatiaren (2. ibilbidea: donostia-mutriku) i. fasea (zumaia-narrondo) egiteko proiektu berrikusiko (13-bi-62/2011-rp) eta proiektuaren dokumentazio osagarriko lanak egiteko eta finantzatzeko. Horretarako:**

**Lehenengo.-** Zumaia-Narrondo bizikleta eta oinezkoentzako bidegorri-zatia egiteko xedez, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planean sartzen den 2. ibilbidearen zati baita (Donostia-Mutriku), Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hau idatzi du: Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Arroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektu berrikusia (13-BI-62/2011-RP).

Proiektu horretan jasotzen eta definitzen dira N-634 errepidean, Txiki-Erdiko biribilgunetik Narrondorainoko bizikleta eta oinezkoentzako bide-zatia egiteko lanak. Lau metroko zabalera izango du eta jarraipena emango dio Zumaia herringunetik Txiki-Erdiko biribilguneraino dagoen herriko bidegorriari.

**Bigarren.-** Zumaia Udalak, bidegorriko obrak egingo direla aprobetxatuz, zenbait zerbitzu bideratu nahi ditu Narrondo auzoraino (ura, gasa eta zuntz optikoa), herriko bidegorriaren azpitik doazen kanalizazioei jarraipena emanez.

Horretarako, kanalizazio proiektu bat idatzi du, eta proiektu hori "Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Arroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektu berrikusiarri atxikitako dokumentazio osagarrian" sartu da. Agiri hori bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko proiektuarekin batera onartu eta lizitatuko da.

**Hirugarren.-** Proiektuaren aurrekontua, %21eko BEZa barne 1.419.616,69 € euro da, eta honela dago banatuta:



Kontzeptua/Concepto	Aurrekontua/Presupuesto (€) BEZa barne/IVA incluido (21%)	Nori atxikia / Asignado a
Bidegorria egitea Ejecución del bidegorri	1.230.147,30 €	Foru Aldundia Diputación Foral
Zerbitzuak kanalizatzea Canalización de servicios	189.469,39 €	Zumaia Udala/ Ayuntamiento de Zumaia
GUZTIRA/ TOTAL	1.419.616,69 €	

Prezioak eguneratuta daude obrak lizitaziora ateratzeko.

**Laugarren.-** Proiektua egiteko aurreikusitako epea sei (6) hilabete da; eta 2013an hasi eta 2014an amaituko dela aurreikusi da.

**Bosgarren.-** Proiektuak atxikitako lurak Gipuzkoako Foru Aldundiak desjabetuko ditu.

**Hori guztia kontuan hartuta, estipulazio hauek hitzartu dira:**

**Lehenengoa.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean Aldundia) bere gain hartzen du "Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Aroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektu berrikusian" (13-BI-62/2011-RP) eta proiektuaren agiri osagarrian jasotako obrak egitea.

**Bigarrena.-** Aldundiak bere gain hartzen du proiektuko obrak onartzea eta lizitaziora ateratzea; eta obrak 2013an hasi eta 2014an bukatzea.

**Hirugarrena.-** Zumaia Udalak parte hartuko du proiektuaren exekuzioaren finantziazioan, zerbitzuen kanalizazioari dagokiona ordainduz: gehienez 189.469,39 euro, BEZa barne. Kanalizazioei dagokienez, hortik aurrerako gasturik balego, Udalaren kontura izango litzateke.

**Laugarrena.-** Aldundiak finantzatuko du obren kostuaren gainerakoa; baita obra zuzendaritzaren, laguntza teknikoaren edo antzekoen kostua ere.

**Bosgarrena.- Obrak 2013an eta 2014an zehar egitea aurreikusi denez gero, Zumaia Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari bi ordainketa egingo dizkio:**

**- Lehenengo ordainketa 2013an, 85.000 euro, zuinketa egiaztatzeako akta sinatu eta handik hilabetera.**



## Zumaia Udala

2013IAKU0005

– Bigarren ordainketa 2014an, gehienez 104.469,39 euro, hilabeteko epearen barruan, benetan egindako zerbitzuen kanalizazio lanen kostua atera eta obrak behar bezala hartutzat eman ondoren. Horretarako, Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aldeko txostena eman beharko dute

**Kontu-Hartzaileak dio** beharrezkoa dela kreditu aldaketa egitea; horretarako 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontueiburuzkoa dio **34. artikuluan**:

### **Kreditu gehigarriak**

1.- *Zainpeturiko ordainketa krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau askieza eta zabalezina bada, gasturen bat egin behar izan eta foru arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez ezin bete denean, kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaio, hurrengo ataletan adieraziko diren arauen arabera.*

2.- *Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, Kontuhartzaitzak txostena eman ondoren, izapidetuko da, gutxienez, honako agiri hauek eduki behar dituelarik:*

a) *Gastua beharrezkoa edo presazkoa delako frogatuta, udalburuak emana.*

b) *Proposatutako gastua finantzatu behar duen baliabidearen eta behar bezala xehekatutako aurrekontu partida gehitu gaiaren zahaztapena. Honi dagokionez, finantzaketatzat, **diruzaintzaren gerakina**, aurrekontu arruntean aurreikusitako sarrera osoen gainean likidatutako berriak eta handiagoak, beti ere sarrera oso horiek normaltasun osoz egiten direla frogatzen denean, helbururen bat izan behar edo badute ezik, eta aurreko artikuluan aipatutako ordainketa kredituen baliogabetzearen ziozko baxak hartuko dira.*

3.- *Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, sinatu eta txostena eman ondoren, udalbatzari bidaliko zaio, onetsi dezan. Foru arau honetako 15., 17. eta 18. artikuluek aipatzen dituzten aurrekontu orokorren informazio, erreklamazio eta argitarapen eta baliabideei buruzko arauak aplikatuko dira. Lehendakariak izango du eskumena baldintza hauek betetzen dituzten kreditu gehigarriak onartzeko, baldin eta horrela jasota badago ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko arauan:*

a) *Artikulu honen bigarren apartatuko hirugarren paragrafoan aipatutako kreditu eragiketen bidez ez finantzatzea.*

b) *Urte guztikoak metatuta, aurrekontuaren hasierako kredituen %5etik gorako gehikuntza ez ekartzea.*

*Aparteko kasu horretarako, ez dira aplikatuko apartatu honen aurreko paragrafoan aipatutako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurso arauak.*

**Kontu-Hartzaileak dio** Zumaia Udalaren 2013ko aurrekontuak gauzatzeko Udal arauko 5. artikulua arabera lehendakaria izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen % 5 baino gutxiago bada. Kontu-hartzaileak dio %5a ez duela gaiditzen, baina konpromesuzko kreditua sortzen duenez Osoko Bilkurak onartu behar du kreditu aldaketa hau.

**Proposatzen den eta Osoko Bilkurak onartu behar duen kreditu aldaketa bi urtetan gauzatzen da, eta honako hau da:**

- **2013ko aurrekontu arruntaren aldaketa:**



a) Sarrera:

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
2 0000.870.000.00.01 2013	2012ko Diruzaintzako gerakina	25.087,00	85.000,00	110.087,00
GUZTIRA ...		25.087,00	85.000,00	110.087,00

b) Konpromesuzko Gastu kreditua:

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
1 0100.601.511.00.04 2013	Narrondo auzora zerbitzu desberdinak bideratu	0,00	85.000,00	85.000,00
GUZTIRA ...		0,00	85.000,00	85.000,00

o 2014ko aurrekontuaren aldaketa ( konpromesuzko kreditua):

a) **Finantzazioa: 2014an izango dugun aurrezki garbiarekin.**

b) **2014ko gastu partida:**

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
5 0100.601.511.00.04 2014	Narrondo auzora zerbitzu desberdinak bideratu	0,00	104.469,39	104.469,39
GUZTIRA ...		0,00	104.469,39	104.469,39

Bestalde, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 FORU ARAUA, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenaren arabera 7. artikulua dio:

***Diruzaintzako gerakinaren erabilpena.***

1. *Aurrekontu likidazioak gastu orokorretarako diruzaintza gerakin positiboa ekarriz gero, gerakin hori zor bizia murrizteko edo zorpetze eragiketa gehiago saihesteko erabiliko da.*



**2. Dena den, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinik izanez gero, kreditu gerakinen txertaketak finantzatzeko erabili ahal izango da.**

3. Gainera, uneko ekitaldirako finkatutako zor helburua betetzen duten entitateek kreditu gehigarriak finantzatzeko erabili ahal izango dute gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.

4. Zorraren helburua betetzen ez den entitateetan, zor bizia murrizteko erabiliko den gastu orokorretarako diruzaintza gerakinak bermatu egin beharko du, gutxienez, norbere plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako zor murrizketaren bidea bete egingo dela.

**Beraz, Kontu-Hartzaileak dio araua betetzen duela.**

**B) ARTADIKO SANEAMENDUAREN KONPROMESUZKO KREDITUEN KOPURUEN ALDAKETA 2012TIK 2014RA; OSOKO BILKURAK ONARTU BEHAR DUENA.**

**2012ko aurrekontuan** Artadi Saneamendurako konpromiso- kreditu bat zegoen, eta honako hau zen:

Partida		Has.ko aurrek.	B. betiko aurrek.	Likidazioaren arabera 2013an txertatzeko aukera
1 0100.601.441.00.02 2012	<b>ARTADIKO SANEAMENDUA</b>	295.000,00	295.000,00	207.224,20
5 0100.601.441.00.02 2013	<b>ARTADIKO SANEAMENDUA</b>	295.000,00	295.000,00	

**Kontu-hartzaileak dio**, 2013an artadiko saneamendua lizitzeko guztira 502.224,20€ behar direla. Hirigintzako arkitektoarekin aztertuta, 2013an bakarrik 295.000 euro gastatuko dira (gastu onartua) eta 2014ean gehienez 207.224,20€.

Beraz honako **konpromiso-kredituaren urte aldaketa** proposatzen zaio 2013ko aurrekontuan Osoko Bilkurari eta konpromisoko kreditua horrela geratuko litzateke:

Partida	Has.ko aurrek.	Gehikuntza	B. betiko aurrek.
---------	----------------	------------	-------------------



## Zumaia Udala

2013IAKU0005

1 0100.601.441.00.02 <b>2013</b>	<b>ARTADIKO SANEAMENDUA</b>	295.000,00	0	295.000,00
5 0100.601.441.00.01 <b>2014</b>	<b>ARTADIKO SANEAMENDUA</b>	0	207.224,20	207.224,20

Hots, 2012ko Artadiko Saneamenduaren kreditua ez genuke txertatuko 2013an; 2014ra pasatuko litzateke zuzenean. 2014ko konpromesuzko gastua 2014ko Aurrezki Garbiarekin finantzatuko da.

Horregatik proposatzen zaio osoko bilkurari 21/2003 Foru Arauak bere 22.artikuluaren 2.puntuan dionaren arabera:

*“Etorrizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %25 baino gehiago, 6.3.e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa sortu ezean. Konpromiso-kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako muga ondoretarako.”*

**Kontu-hartzaileak dio** 22.artikulua betetzen dela.

Bestalde, 2013rako aurrekontuak prestatzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako toki enteiteek jarritu beharreko jarraibidean aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa dela eta honako azterketa egin behar da:

### **C)AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko otsailaren 19koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 3.kreditu aldaketaren onarpena

### **AURREKONTUEN EGONKORTASUNA, FINANTZEN IRAUNKORTASUNA ETA GASTU EZ FINANTZARIOAREN MUGARI BURUZKO TXOSTENA**

Onarpenerako aurkezten den 2013ko aurrekontu proiektuak, bete egiten ditu 2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koa, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ezarritako helburuak, ondoren adierazten den moduan:

**Aurrekontuen egonkortasuna** (11.4 art.). Aurrekontu proiektuak 181.715 euroko superabita du, hirugarren kreditu aldaketaren ondoren 71.628€ superabita du SEC Europako Kontuen





## Zumaia Udala

2013IAKU0005

Sistemaren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarriak, kalkulu hori sarreren 1etik 7ra bitarteko kapituluaren eta gastuen 1etik 7ra bitarteko kapituluaren arteko diferentziarekin parekatu da, modu kontsolidatuan. Kontsolidazioa egiteko, udalaren eta bere organismo autonomoen sarrera eta gastu aurreikuspenak hartu dira kontuan. **Hori dela eta, aurrekontu proiektuak bete egiten du defizit helburua.**

**Finantzen iraunkortasuna** (13. art.) Ministroen Kontseiluak 2012ko uztailearen 20an hartutako akordioaren arabera, udal entitateen zor biziak, guztira, 2013-2015 epealdiko urte bakoitzean, ezingo du gainditu BPGaren %3,8. Ez dago, ordea, estatistika ofizialik BPGa udalez udal xehatzen duenik. Horregatik, horren balioespena egin da Autonomien eta Udalen Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak 2012ko maiatzaren 22an bidalitako zirkularrean oinarrituta. Zirkular horretan BPGaren %0,3 eta sarrera ez finantzarioen (1etik 7ra bitarteko kapituluak) %4,39 parekidetzat jotzen dira. Hirugarren kreditu aldaketaren ondoren **sarrera ez finantzarioak 13.515.084,16€ dira**. Beraz, BPGaren %3,8 eta sarrera ez finantzarioen **%55,61** ere parekidetzat jo litezke. Hori hala izanik, udalaren eta bere organismo autonomoen zor bizia, emandako abalena ere kontuan hartuta, **3.662.060,00 (Ziri abala)+ 318.000eurokoa ( FOFIMen mailegua) denez**, hau da, sarrera ez finantzarioen( hirugarren kreditu aldaketa kontuan izanik ( % **29,45** ) aurrekontu proiektuak bete egiten du zorraren helburua.

Zumaia Udalak Zumaia Lantzen emandako abalak honako hauek dira:

Kontrato zenbakia				Saldoa
Mailegua	Bermea	Hasierako data	Bukaerako data	2012/12/31
50594106 Bankoa	Udalaren abala	28/12/2011	28/06/2021	1.000.000,00
50599647 Bankoa	Hipotekario eta Udalaren abala	18/07/2012	31/01/2018	1.962.060,00
2521518163 Kutxa	Udalaren abala	28/12/2011	28/12/2021	700.000
<b>Guztira</b>				<b>3.662.060,00</b>

**Gastu ez finantzarioaren muga** (30. art.) 2013rako, gastu ez finantzarioaren muga 14.661.126,78 eurokoa da. Zenbateko hori ondoko kalkuluaren arabera zehaztu da, eta bere barruan hartzen du epe ertainean BPGaren hazkundearen erreferentzi tasa %1,7 izango dela:

2012ko hasierako aurrekontuko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra): 14.429.425€  
- 2012ko interesak:0€  
- Finantzaketa lotua duen gastua 2012an: 34.700€  
= 2012ko gastu konputagarria: 14.394.752€  
x BPGaren hazkundearen erreferentzi tasa (%1,7): 1,017  
= 2013ko gastu konputagarria: 14.639.462,78€  
+ 2013ko interesak: 12.664€  
+ Finantzaketa lotua duen gastua 2013an: 9.000€  
+ Araudian egindako aldaketen eragina (12.4 art.): 0€



**Zumaia Udala**

2013IAKU0005

= 2013ko gastu ez finantzarioaren muga: 14.661.126,78€

2013ko aurrekontu proiektuaren gastu ez finantzarioa, guztira hirugarren kreditu aldaketaren ondoren 13.443.456,16 eurokoa da. Zenbateko horrek ez duenez gainditzen lehen kalkulaturako gastu ez finantzarioaren muga, aurrekontu proiektuak bete egiten du gastuaren erregela.

**Beraz, lehen aipatutako lege organikoaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, udala ez dago behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.**

Zumaian 2013ko maiatzaren 27an

Zumaia Kontu-Hartzailea >>

Proposamena eztabaidatzea eta bozkatzea bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Arritokieta Gonzalezek (BILDU) argitu du 3. kreditu aldaketan bi proposamen ezberdin bozkatu behar direla. Batetik, Zumaia-Narruondo bizikleta eta oinezkoentzatko bidegorri-hitzarmenaren arabeko kreditu aldaketa, eta, bestetik, Artadiko saneamenduaren konpromesuzko kredituen kopuruen aldaketa 2012tik 2014ra.

**A)** Zumaia-Narruondoko hitzarmenaren 2013rako aurreikusitako 85.000 € 2012ko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuko dira eta 2014rako 104.469,39 € konpromesuzko kreditu bitartez. Horretarako, bada, 2013ko aurrekontuak kreditu aldaketa egin beharra dago (kreditu gehigarria) eta baita ere 2014ko aurrekontuetan (konpromesuzko kreditua).

Ondoren bozkatzeari ekin diote, batzarraldiaren grabaketan jasota geratu den eran.

### **ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **11 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

**Erabakia:** Zumaia-Narruondo bizikleta eta oinezkoentzako bidegorri-hitzarmena sinatzeko beharrezko kreditu aldaketak onartu dira.

-----  
**B)** Artadiko saneamenduaren konpromesuzko kredituen kopuruen aldaketa -2012tik 2014ra- proposamenaren inguruan, Arritokieta Gonzalezek (BILDU) azaldu du 2012ko aurrekontuetan konpromesu-kreditu bat zegoela 295.000 eurokoa eta 2013an beste 295.000 eurokoa. Ikusirik 2013an 295.000 € erabiliko direla 2012 konpromesuzko-kreditua 2014ra zuzenean txertatzea proposatzen da, kreditu hori aurrezki garbiarekin finantzatuko delarik.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) Artadiko inbertsioak lehenetsi ez duela adierazi du, atzerapenak justifikatzeko baizik eta konpromesuzko kredituak plan ekonomiko finantzarioa hipotekatzen duela.

Alkateak, berriz, esan du inbertsioa 2004 urtetik aurreikusita dagoela eta gas-sarea



ez ezik, ur horniduraren sarea ingurura zabaltzeko aprobetxatuko dela eta horrela Zumaiako ur hornidura bermatuko duela, izan ere azken aldian ezbeharrak medio Zumaiako ur hornidura kolokan geratu izan dela.

Jarraian, bozkatzeari ekin diote, batzarraldiaren grabaketan jasota geratu den eran.

### ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **7 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **4 boto** (4 EAJ-PNV)

Abstentzioak: 0 boto

**Erabakia:** Artadiko saneamenduaren kontratua gauzatzeko konpromesuzko kreditua 2012tik 2014ra aldatzea onartu da.

-----

#### 4.- **HIRIGINTZA.-**

##### 4.1.- **IRIZPENAK:**

4.1.1.- **BIZIKLETA ETA OINEZKOENTZAKO ZUMAIA-ARROA ZATIAREN (2. IBILBIDEA: DONOSTIA-MUTRIKU) I. FASEA (ZUMAIA-NARRONDO) EGITEKO PROIEKTU BERRIKUSIKO (13-BI-62/2011-RP) ETA PROIEKTUAREN DOKUMENTAZIO OSAGARRIKO LANAK EGITEKO ETA FINANTZATZEKO HITZARMENA ONARTZEA BIDEZKO BADA.**

<<HITZARMENA, BIZIKLETA ETA OINEZKOENTZAKO ZUMAIA-ARROA ZATIAREN (2. IBILBIDEA: DONOSTIA-MUTRIKU) I. FASEA (ZUMAIA-NARRONDO) EGITEKO PROIEKTU BERRIKUSIKO (13-BI-62/2011-RP) ETA PROIEKTUAREN DOKUMENTAZIO OSAGARRIKO LANAK EGITEKO ETA FINANTZATZEKO.

Donostian, 2013ko .....ren ..(e)(a)n.

### ELKARTU DIRA

Alde batetik, \_\_\_\_\_ jauna, Zumaiako Udaleko alkate-lehendakaria.

Bestetik, Larraitz Ugarte Zubizarreta andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako foru diputatua.

### ESKU HARTZEAK:

Lehena, Zumaiako Udaleko alkate-lehendakari denez, Udalaren legezko ordezkari gisa, horretarako ahalmena emana baitio 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Udal Erregimenaren Oinarriak arautzekoak, 21. artikuluan.

Bigarrena, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkari gisa, horretarako baimena emana baitu Diputatuen Kontseiluak 2013ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_(e)ko Erabakiaren bidez.

Bi aldeek elkarri aitortzen dizkiote gaitasuna eta zilegitasuna hitzarmen hau izenpetzeko,



Administrazioen arteko harreman guztietan beharrezkoak diren koordinazio, lankidetzaz eta elkarrekiko errespetuaren printzipioei jarraituz, eta horretarako ondorengo azalpen eta klausulak hitzartu dituzte:

### AZALPENAK

**Lehenengo.-** Zumaia-Narrondo bizikleta eta oinezkoentzako bide-zatia edo bidegorri-zatia egiteko xedez, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planean sartzen den 2. ibilbidearen zati baita (Donostia-Mutriku), Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hau idatzi du: Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Arroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektu berrikusia (13-BI-62/2011-RP).

Proiektu horretan jasotzen eta definitzen dira N-634 errepidean, Txiki-Erdiko biribilgunetik Narrondorainoko bizikleta eta oinezkoentzako bide-zatia egiteko lanak. Lau metroko zabalera izango du eta jarraipena emango dio Zumaia herrigunetik Txiki-Erdiko biribilguneraino dagoen bidegorriari.

**Bigarren.-** Zumaia Udalak, bidegorriko obrak egingo direla aprobetxatuz, zenbait zerbitzu bideratu nahi ditu Narrondo auzoraino (ura, gasa eta zuntz optikoa), herriko bidegorriaren azpitik doazen kanalizazioei jarraipena emanez.

Horretarako, kanalizazio proiektu bat idatzi du, eta proiektu hori "Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Arroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektu berrikusiarik atxikitako dokumentazio osagarrian" sartu da. Agiri hori bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko proiektuarekin batera onartu eta lizitatuko da.

**HIRUGARREN.-** Proiektuaren aurrekontua, % 21eko BEZa barne, \_\_\_\_\_ euro da, eta honela dago banatuta:

Kontzeptua/Concepto	Aurrekontua/Presupuesto (€) BEZa barne/IVA incluido (21%)	Nori atxikia / Asignado a
Bidegorria egitea Ejecución del bidegorri	1.230.147,30 €	Foru Aldundia Diputación Foral
Zerbitzuak kanalizatzea Canalización de servicios	189.469,39 €	Zumaia Udala/ Ayuntamiento de Zumaia
GUZTIRA / TOTALES	1.419.616,69 €	

Prezioak eguneratuta daude obrak lizitaziora ateratzeko.



**Zumaia Udala**

2013IAKU0005

**Laugarren.-** Proiektua egiteko aurreikusitako epea sei (6) hilabete da, eta 2013an hasi eta 2014an amaituko dela aurreikusi da.

**Bosgarren.-** Proiektuak atxikitako lurak Gipuzkoako Foru Aldundiak desjabetuko ditu.

Hori guztia kontuan hartuta, estipulazio hauek hitzartu dira:

#### **ESTIPULAZIOAK**

**Lehenengoa.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean Aldundia) bere gain hartzen du Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Arroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektuan (13-BI-62/2011-RP) eta proiektuaren agiri osagarrian jasotako obrak egitea.

**Bigarrena.-** Aldundiak bere gain hartzen du proiektuko obrak onartzea eta ° lizitaziora ateratzea eta obrak 2013an hasi eta 2014an bukatzea.

**Hirugarrena.-** Zumaia Udalak parte hartuko du proiektuaren exekuzioaren finantziazioan, zerbitzuen kanalizazioari dagokiona ordainduz, gehienez 189.469,39 euro, BEZa barne. Kanalizazioei dagokienez, hortik aurrerako gasturik balego, udalaren kontura izango litzateke.

**Laugarrena.-** Aldundiak finantzatuko du obren kostuaren gainerakoa, eta baita obra zuzendaritzaren, laguntza teknikoaren edo antzeko gauzen kostua ere.

**Bosgarrena.-** Obrak 2013an eta 2014an zehar egitea aurreikusi denez gero, Zumaia Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari bi ordainketa egingo dizkio:

- Lehenengo ordainketa 2013an, 85.000 euro, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta handik hilabetera.

- Bigarren ordainketa 2014an, gehienez 104.469,39 euro, hilabeteko epearen barruan benetan egindako zerbitzuen kanalizazio lanen kostua atera eta obrak behar bezala hartutzat eman ondoren. Horretarako, Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiko teknikarien aldeko txostena eman beharko dute.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak hilero onartuko ditu obra ziurtapenak eta Zumaia Udalarik bidaliko dizkio jakinaren gainean egon dadin.

**Seigarrena.-** Zerbitzu kanalizazioen artapena eta mantentze lana Zumaia Udalaren kontura egingo dira, eta bidegorriaren mantentze lana, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura.

**Zazpigarrena.-** Aldundiak eta Zumaia Udalak hitz ematen dute behar diren aurrekontu zuzkidurak xedatuko dituztela, hitzarmen honen bidez 2013 eta 2014rako hartutako finantzaketa konpromisoari aurre egiteko.

Udalak, obren lizitazioa hasi baino lehen hartutako finantza konpromisoari aurre egiteko kreditu egokia



**Zumaia Udala**

2013IAKU0005

eta nahikoa duela ziurtatzen duen agiria bidaliko dio Foru Aldundiari.

**Zortzigarrena.-** Bere egiten duen finantzazioari erantzuteko, Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik jaso beharreko zenbatekoaz baliatuko da Zumaia Udala.

Horretarako, hitzarmen honetan ezarritako obligazioak ez badira betetzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki dezake Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik lehen ordainketatik kentzea Zumaia Udalari zor duen zenbatekoa.

**Bederatzigarrena.-** Hitzarmen hau, sinatzen denean sartuko da indarrean, eta amaitutzat emango da, berme epea bukatu eta ikuskapena egin ondoren antzeman daitezkeen arazoak konpondu eta obra zuzendaritzak txostena aurkezten duen unean.

**Hamargarrena.-** Hitzarmen hau iraungiko da sinatzaileek hala erabakitzen badute.

**Hamaikagarrena.-** Ondare erantzukizuneko erreklamazioak instituzioek tramitatuko dituzte, eta ordaindu ere bai, hala balegokie, hitzarmen honen bidez nor bere gain hartzen dituen jabetza eta betebeharren arabera, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 130. artikuluan eta hurrengoetan xedatukoari jarraituz.

**Hamabigarrena.-** Hitzarmena iraungitzeko arrazoia izan daiteke bi alderdietako batek estipulazioen bat ez betetzea, betiere hilabete lehenago egoera salatuta, jakinarazpen fede-emailen bidez.

**Hamahirugarrena.-** Hitzarmen hau izaera administratibokoa da eta, beraz, aplikatuko zaizkio hitzarmenaren xede gaiari aplikagarri zaion legeria eta administrazio zuzenbideko gainerako arautegia. Lege-arau horiek aplikatzean gerta daitezkeen auziak, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioari jakinaraziko zaizkio.

Eta xedatu denarekin bat datozela frogatzeko, bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte idazpuruan adierazi den lekuan eta egunean.>>

Alkateak hitzarmenaren aurkezpena egin du eta, jarraian, bozkatzeari ekin diote, batzarraldiaren grabaketan jasota geratu den eran

## **ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **11 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto



**Erabakia:** Bizikleta eta oinezkoentzako Zumaia-Arroa zatiaren (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) I. fasea (Zumaia-Narrondo) egiteko proiektua berrikusteko (13-BI-62/2011-RP) eta proiektuaren dokumentazio osagarriko lanak egiteko eta finantzeko, Hitzarmena onartu da.

-----

#### **4.1.2.- HIRUGARREN SEKTOREKOA IZATETIK ETXEBIZITZETARAKOA IZATERA ALDATZEKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETARI BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**<<2013KO MAIATZAREN 27KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, HIRUGARREN SEKTOREKOA IZATETIK ETXEBIZITZETARAKOA IZATERA ALDATZEKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETARI BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEKO.**

#### **AURREKARIAK**

1.- Udalaren osoko bilkurak, 2010eko urriaren 28an, ondorengo Erabakia hartu zuen: Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen udal ordenantzari behin betiko onespena ematea.

2.- Ikusirik indarrean dagoen Ordenantzaren bere aplikazio-eremuan ez dituela aurreikusten kasu berezi eta behar den bezala justifikatutako elbarritasun, beharra edo antzeko egoera pertsonaletan dauden bizilagunak eta lokalaren erosketa eskaera egindako bost urteko (5) epea aurretik egina izan dela ziurtatzea ezinezkoa zaiena.

3.- Ikusirik 2012ko Abenduaren 20ko eta 2013ko Urtarrilaren 21ko Hirigintza Batzordeetan gaia informatu dela, eta ordenantzaren bigarren artikuluan ondorengo puntua sartzea proposatu dela:

“ f) Kasu berezi eta behar den bezala justifikatutako elbarritasun, beharra edo antzeko egoera pertsonaletan, eta Hirigintza batzordeak erabaki ondoren, bakarrik ziurtatu beharko da lokalaren erosketa, erosketa hau eskaera egindako bost urteko (5) epea aurretik egina izan dela ziurtatu beharrik gabe. “

4.- Ikusirik 2013ko otsailaren 28an Udal Batzak, Hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren lehen aldaketari hasierako onespena ematea erabaki zuen eta jendurrean erakustea espediente 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita.

5.- Ikusirik epearen barne alegazio bat aurkeztu dela, Ricardo Azcue Yereguik aurkeztua, bertan ordenantzaren 2. artikulua eta e eta f atalak ezabatzea eskatzen du, aldaketa aurretik lokala etxebizitza bihurtzeko lizentzia eskatzeko orduan, egungo jabeak erosi zuen egunetik gutxienez bost (5) urteko epea igaro ez bada ere Ordenantza honen aplikazio-eremutik eta, beraz, etxebizitza gisa erabiltzeko aukera horretatik kanpo geratzen baitira.



**Zumaia Udala**

2013IAKU0005

**6.-** Ikusirik 2013ko Apirilaren 22ko Hirigintza Batzordean Ricardo Azcue Yeregui izan zela alegazioa aurkezten eta 2013ko Maiatzaren 13ko Hirigintza Batzordean gaia landu zela.

### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2013ko Otsailaren 4ko Hirigintzako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (Bildu)

Azis Alberdi (Bildu)

Aurka:

Abstentzioa: Isidro Fernandez (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

**1-** Ricardo Azcue Yeregui aurkeztutako alegazioa ONARTZEA, ondorioz ordenantzaren 2.e. atala ezabatzea eta honekin batera hasierako onarpenarako dokumentuko 2.f. atala

**2-** Hirugarren Sektorekoa Izatetik Etxebizitzetarako Izatera Aldatzeko Jarduerak Arautzen Dituen Ordenantzaren Lehen Aldaketa Behin Betiko Izaeraz Onartzea. >>

Alkateak gaia gaizerrendatik kentzea erabaki du, EAJ-PNVek proposamen berri bat aurkeztar dagoelako eta nahiago du udal-gobernuak adostasun zabalarekin onartzea.

#### **3.1.- IRIZPENA:**

**2012KO ABENDUAREN APARTEKO ORDAINSARIAREN ORDAINKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**<<2012KO ABENDUAREN APARTEKO ORDAISARIAREN ORDAINKETARI BURUZ IRIZPENA.**

#### **AURREKARIAK**

**1.- Osoko Bilkurak 2012ko abenduaren 26an, honako hau erabaki zuen:** berariazko osagarriko ordainketa gehigarriak eta aipaturiko hilabetearen ordainketa gehigarri diren baliokideak, ez-erabilgarria bihurtzea erabaki da, bai Udalean, bai Erakunde Autonomoetan.

Bozketaren emaitza:

Aldekoak: 12 boto (BILDU( 6), ARALAR( 1), EAJ( 4) ,PSOE(1)).





Aurka: 0 boto

Abstentzioa: 0 boto

**2.- Alkateak 2013ko maiatzaren 17an honako Alkate erabakia hartu du:**

2012an ordaindu ez zen aparteko ordainsariaria, 2013an, lehenbailehen, ordaintzea bai Udalean, bai gainontzeko Erakunde Autonomoetan. Horretarako eta 2013ko aurrekontuan kreditu nahikoa izateko, 2013an kreditu aldaketa bat egitea ebazten du "Kreditu gehigarria" hain zuzen ere. Kreditu gehigarria finantzatzeko 2012ko aurrekontuaren itxieran izan den gerakina erabiliko da.

**3.-Kontu-Hartzaileak Ingera orria aurkeztu du, laburbilduz honako hau esaten du:**

Ezin dela onartu Alkate Erabaki hori, bi arrazoiengatik..

**a)Indarrean dauden arauen kontrakoa da( Aurrekarietan aipatutako arauen kontra doa), eta erabat deusezak dira:** Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legea, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duena) horrela dio **62.artikuluan: Erabateko deuseztasuna:**

o 1.Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta:

b) Gaia edo lurraldea dela eta, argi eta garbi eskumenik ez duten organoek eman badituzte..

f) Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak nahiz presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmen edo eskubideak eskuratzeko bide ematen badiete, horretarako funtsezko betekizunak ez dituztenei.

o 2. Erabat deusezak izango dira honako administrazio-xedapen hauek ere: konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak hausten dituztenak; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta zehatze-xedapen kaltegarrien edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zehatze-xedapenen atzeraeragina ezartzen dutenak.

**b)Erabili nahi den kreditua 2012ko ekitaldi itxiaren gerakinaren zati bat da, eta kopuru hori ez-erabilgarria bihurtu da Osoko Bilkurak horrela erabaki zuelako. Erabilgarria izateko Osoko Bilkurak onartu beharko luke, baina legez kanpoko akordioa izango litzateke, indarrean dauden arauak eragozten baitu.**

**Beraz, Kontu-Hartzaileak, ingera orri (erreparu) honen bitartez, Alkate Erabakia ezin dela onartu ondorioztzen du, eta Udalbatzak ebatzi beharko duela eztabaida.**

IRIZPENA

Ondorioz 2013ko maiatzaren 21ean, Batzorde honek aldeko irizpena jasotzen du 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ordainketa egiteko 2013an, bai Udalean, bai gainontzeko erakunde autonomoetan, honako botoekin:

Aldeko botoak: 2 (BILDU), 1 (ARALAR).

Abstentzioak: 0.

Kontrako botoak: 2 (PNV), 1 (PSOE).

Erabaki du, PROPOSAMEN hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea.



Zumaia, 2013ko maiatzaren 17a

Mikel Zubizarreta Elizegi  
Zumaia Kontu-Hartzaileak>>

<<INGERA ORRIA (ERREPAROA)

327/2013 Alkate erabakiaren kontra, non alkateak erabakitzen duen : 2013an ordaintzea, 2012ko abenduaren ez ohiko ordainsariaren kreditua bai Udalean, bai gainontzeko Erakunde Autonomoetan, ez erabilgarritzat Osoko Bilkurak jo zuena 2012ko abenduaren 26an.

**a)AURREKARIAK**

- 1.-20/2012 Errege-Dekretu-legea 2. artikuluko 4. Atalean dio: "2012ko abenduaren aparteko ordainsariaren kentzearen eta gehigarrietarako ordainketak, berariazko osagarriak edo ordainketa gehigarri baliokideen arabera, artikuluko honekin bat datozen ekarpenak, etorkizuneko ekitaldietan pentsio-planetara edo aseguru-kontratueta zuzenduko dira, barne, erretiro-gertakizuna estaliz; Aurrekontu- Egonkortasuna bermatzeko eta finantzazio-iraunkortasuna sustatzeko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.
- 
- 2- 2012ko urriaren 23ko ohar informatzaile berriak, 2012ko irailaren 5eko ohar Informatzailea aldatzen du, eta 20/2012 Errege-Dekretu-legea ( aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa) 2. artikulua zehazten du eta baita 2/2012ko Legearen (Aurtengo ekitaldirako Estatuko orokorretarako aurrekontuena) 23. artikulua ere.
- 
- Esaten duen arabera:
- 
